XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
KULTURA SAILA

6020

249/2011 DEKRETUA, azaroaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2011ko ekitaldiko aurrekontuko 9211 programan («Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak») diru-sarrerak lortu direla-eta, Kultura Saileko hainbat programatan 328.628,67 euroko kredituak gaitzen dituena.

8.628,67 euroko sarrera gehigarriak lortu dira, jardun fisikoa eta kirola sustatzen duten ikastetxeak garatzeko diru-laguntzak emateko, 2011. urterako, Kirol Kontseilu Gorenaren deialdia betez.

Halaber, Kultura Ministeriotik eratorritako sarreren ekarpena egiteko konpromiso irmoak daude –220.000 euro–, zinema-aretoei laguntzak emateko, autonomia erkidegoen bidez, aipatu ministerioaren eta Kultura sailaren arteko lankidetza-hitzarmenari dagokionez.

Azkenik, Kultura Ministeriotik eratorritako sarreren ekarpena egiteko konpromiso irmoak daude –100.000 euro–, Urdaibai eskualdeko ondare kulturala balioesteko proiektuak finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoari diru-laguntza izenduna emanez.

Goian aipatutako kredituak, 328.628,67 eurokoak, gaitzea eskatzen du Kultura Sailak.

Horiek horrela, gaitu egingo dira kreditu horiek, 1/2011 Legegintza Dekretuaren 82. eta 83. artikuluak betez (1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena).

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko eta Kulturako sailburuen proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko azaroaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan, kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4512	454.99	8.628,67

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	439.00	8.628,67

2011. urterako, jardun fisikoa eta kirola sustatzen duten ikastetxeak garatzeko diru-laguntzak finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

Bigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan, kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4513	752.00	220.000

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	739.00	220.000

Zinema-aretoei laguntzak ematea finantzatzeko bideratuko dira funtsak.

Bigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan, kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4514	236.01	100.000

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	431.00	100.000

Urdaibai eskualdeko ondare kulturala balioesteko proiektuak finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 29an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.